

Ordizian, 2010ko ekainaren 25ean, Udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen **UDALEKO OSOKO BILKURA, OHIKO DEIALDIAN**, honakoak bertaratu zirelarik

**BERTARATUAK:**

**BATZORDEBURUA:** Jose Miguel Santamaría Ezeiza jauna

**BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:**

Alejandra Iturrioz Unzueta andrea	PNV taldea
Jon Txurruka Etxezarreta jauna	PNV taldea
Miren Auzmendi Urkiola andrea	PNV taldea
Belen Maiza Urrestarazu andrea	EA taldea
Iban Asenjo Garde jauna	EA taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	PSE/EE (PSOE) taldea
Jose J.Lopez Fernandez jauna	PSE/EE (PSOE) taldea
Mikel Leunda Semperena jauna	EB-Berdeak/Aralar taldea
Carlos Gonzalez Astiz jauna	EB-Berdeak/Aralar taldea

**BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK**

Iñigo Manrique Cía jauna	PP taldea
Mónica Marañón Basarte andrea	PSE/EE (PSOE) taldea

**Ordezkapen bidezko BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA.-** Jon Amondarain Aierbe jauna

**KONTU-HARTZAILEA:** Jose Luis Aramburu jauna

**ITZULTZAILEA:** Ez da bertaratu.

**BERTARATUAK ETA EZIN ETORRIAK**



## **AZTERTUTAKO GAIAK**

### **EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:**

- 1.-2010eko maiatzaren 24an ez-ohiko deialdian egindako Osoko Bilkurako aktaren zirriborroa onartzea ..... **3. orr.**
- 2.-2010eko maiatzaren 28an ohiko deialdian egindako Osoko Bilkurako aktaren zirriborroa onartzea. .... **3. orr.**
- 3.EA, ARALAR eta Ezker Abertzaleak aurkeztutazo proposamen politikoa, "Bai Udalbiltzari, bai Euskal Herriari" lemarekin. .... **4. orr.**
- 4.Ezker Batuak/Aralarrek aurkeztutako proposamen politikoa, Israelgo estatuaren azkenaldiko ekintza militarrek gaitzesteko. .... **7. orr.**
- 5.-Ezker Batua/Aralarrek aurkeztutako administrazio proposamena, larunbatetan anbulatorioa ixteagatik ipinitakoa. .... **12. orr.**
- 6.2009ko kontu orokorrak onartzea. .... **15. orr.**
- 7.-Borondatezko lankideari diru-laguntza (Iparra-Hegoa programa) ..... **16. orr.**
- 8.-Ordizia Lantzen SAri Udalak egindako abala, San Joan eremuko jabekideekin egindako zenbait kontratari dagokiona. .... **17. orr.**
- 9.- Agenda 21eko ekintza plana: 2010/2020 ..... **21. orr.**

## **PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK**

### **GORABEHERAK**

### **GALDE-ESKEAK**

### **ORDUTEGIA**

HASIERA ORDUA: 8,50 h

BUKAERA ORDUA: 10.20 h.



Jarraian eguneko lehen puntuaren berri eman du Batzordeburuak

### **1.-2010eko maiatzaren 24ean egindako aparteko Osoko Bilkurako akta onartzea**

#### Proposamena

#### **2010eko maiatzaren 24ean egindako aparteko Osoko Bilkurako aktaren zirriborroa onartzea**

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

#### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: ez da izan.

#### Bozketa

Eztabaida amaitu ondoren eta bertaratutakoei zer bait esateko aukera eman eta gero, Alkate jaunak proposamena bozkatzea eskatu du

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 9 (PNV 4, EA 2, PSE-EE (PSOE) 1, IU/EB-ARALAR 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 1 (Lopez jauna PSE-EE (PSOE) ez zelako bilera honetara etorri).

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren bigarren puntuaren berri eman du:

### **2.- 2010eko maiatzaren 28an ohiko deialdian egindako Osoko Bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.**

#### Proposamena

#### **2010eko maiatzaren 28an egindako Osoko Bilkurako aktaren zirriborroa onartzea**

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

#### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:



## Asenjo jauna

Asenjo jaunak jakinarazi du jasotako euskarazko aktaren 13. orrialdean azaltzen dela Dubreuil jaunak Gonzalez Astiz jaunari erantzuten diola (esandakoen azkenaurrekoa), eta benetan Asenjo jaunari erantzun ziola, eta beraz, Asenjo jaunak esandakoa falta dela. Akatsa zuzendu, akatsa balego.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

## Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 9 (PNV 3 EA 2, PSE-EE (PSOE) 2, IU/EB-ARALAR 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 1 (Iturrioz Andrea EAJ/PNV ez zelako bilera honetara etorri)

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du aipatutako aldaketekin.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

### **3.- EA, ARALAR eta Ezker Abertzaleak aurkeztutazo proposamen politikoa, “Bai Udalbiltzari, bai Euskal Herriari” lemarekin.**

#### BAI UDALBILTZARI, BAI EUSKAL HERRIARI

“UDALBILTZA, Euskal Herriko Udalen eta Udal Hautetsien Biltzarra”, nazio-instituzioa, zazpi lurraldeetako ia 1.800 udal hautetsik sortu zuten, 1.999ko irailaren 18an Bilboko Euskalduna Jauregian. Honako printzipio eta helburuekin sortu zuten:

1. Euskal Herria nazioa dela aldarrikatzea.
2. Euskal Herriaren egituraketa politikoa eraikitzen laguntzea, lurraldetasuna lekuko izanik eta zazpi euskal lurraldeetako udal ordezkariak esparru erkidean batzeko asmoz.
3. Euskal Herriaren nazio eraikuntza bultzatzea, prozesu dinamiko eta demokratikotzat harturik eta euskal herritar guztien erabakimen eta parte hartze askean oinarriturik.
4. Herrialde guztietako udalerrien arteko harremanak eraikitzen laguntzea, hizkuntzaren, kulturaren, kirolaren, ingurumenaren, lurralde antolaketaren, ekonomiaren garapenaren eta ongizatearen alorrean eta beste esparru batzuetan, udal ordezkarien ekintza bateratuei bide emanez.
5. Nazioartean Euskal Herria nazio berezko eta desberdindua dela adieraztea, baita Euskal Herriak nazio gisa jardun nahi duela ere Europako etorkizuneko egituraketan eta erakundeetan.

Helburu hauek gauzatze aldera hamaika ekimen bultzatu, sendotu, babestu eta aurrera



atera izan ditu UDALBILTZAK azkeneko ia hamaika urte hauetan.

Oztopoz jositako ibilbidea izan du. Horien artean, nabarmena 2.003ko udaberrian Madrileko Auzitegi Nazionalak aginduta erakunde nazionalaren aurkako polizia operazioa dugu.

Operazio honen ondorioz UDALBILTZAko hainbat hautetsi eta langile atxilotu, bulego publikoak itxi, udaletxeak erregistratu, materiala eraman, Zuberoan hainbat enpresa egitasmo laguntzeko herritarrek emandako dirua konfiskatu eta UDALBILTZAri suspentsioa ezarri zioten.

Operazio honen aurrean, udal hautetsi, ordezkari politiko, sindikal, kultural eta sozial ugari eta anitzek eta milaka eta milaka herritarrek eraso salatu zuten Bilboko kaleetan, "Bai Udalbiltzari, Bai Euskal Herriari" lelopean.

Orain, zazpi urte beranduago, UDALBILTZAren aurkako epaiketa dator. Fiskalaren zein herri-akusazioaren eskaerak ezagutu ditugu, hautetsi eta langile izan diren 22 pertsonentzako 10 eta 23 urte bitarteko espetxe zigorrak hain zuzen. Nabarmenezkoa da UDALBILTZA erakundearen beraren behin betiko ilegalizazioa eskatzen dela.

Honen aurrean, ORDIZIAKO udalbatzarrak honako puntu hauek onartzen ditu:

1. Aldarrikatzea 1999ko irailean Euskalduna jauregian egindako batzar sortzailean onartu ziren bost helburuen alde lan egitea beharrezkoa eta zilegi dela eta ezin dela delitutzat jo. Helburu eta lan-ildo horietan aurrera egiteagatik hautetsi eta alkateak kriminalizatzea demokraziaren aurkako ekimena da, are gehiago kontuan hartuta epaituak sufrago unibertsalez aukeratutako herri-ordezkariak direla.
2. Konpromisoa hartzea, edozein arlo instituzionaletan, demokratikoki aukeratutako ordezkariak Euskal Herriko lurralde eta eremu administratibo guztietako instituzioak sortu, bultzatu, garatu eta finantzatzeko duten eskubidea errespetatzeko.
3. Udalbiltza eta bertako hautetsi eta langile ohien aurka Madrileko Auzitegi Nazionalen eramaten ari den auzibidea irmoki salatzea eta Estatuko Gobernuari eskatzea Estatuko fiskal nagusiak gaur egun mantentzen duen akusazio publikoa erretira dezala.
4. Epaiketa gertatu bitartean, uztailaren 15ean Ordiziako plazan arratsadeko 20:00etan kontzentratzera deitzen ditugu herritarrak, era isilean elkartasuna adierazteko.

Euskal Herrian, 2.010ko ekainaren 14ean

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

#### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Alkate jauna

Bere alderdiak, PNVk puntu bat gehitu nahi diola jakinarazi du:



*"Udalaren iritziz, 'Dena ETA da' erabilia, mugarik gabeko leporatzeak egin daitezke pertsonen eta erakundeen aurka. Euskal lurraldeak instituzionalizatzea eta nazio-erakuntza bultzatzea, edo euskararen alde lan egitea euskal herritar eta hautetsi askoren iritzia eta konpromisoa da. Guardia Zibilak bere txostenetan pertsona horiek, antza denez, ETAk bezala pentsatzen dutela eta, beraz, horiek guztiak ETako kideak direla jasotzea astakeria juridiko eta politikoa da".*

#### Gonzalez jauna

Bere ustez, azaldu du, aurkeztutako testuak bi zati ditu, alde batetik adierazpena dago, eta bestetik bozkatu beharreko puntuak. Adierazpenari dagokionez, bi atal dituela azaldu du:

-Epaiketari buruzko adierazpena, eta bere alderdiak bat egiten du honekin.

-Udalbiltzako proiektuari dagokiona.

Bozketan hitzaurrea alde batera uztea eskatu du, horrekin batera jakinarazi du testuaren 1. puntuko lehenengo lerrotik "beharrezko" hitza kentzen bada, proposamenaren alde bozkatuko dutela.

#### Dubreuil jaunak

Azaldu du ez dutela bozkatuko, eta gaia nola bideratzen den ikusita, kontra ere bozkatu dezaketela. Azaldu du epaileen esku-hartzea errespetatu nahi dutela.

#### Gonzalez jauna

Hitzaurrea eta jasotako puntuak bereizita bozkatzea proposatu du berriro.

Aho batez PNVk aurkeztutako testua 5. puntu bezala sartzea onartu da, alde batetik hitzaurrea eta bestetik testuaren puntuak, 1. puntuko "beharrezko" hitza kenduta.

### **Adierazpena bozkatzea (Hitzaurrea):**

#### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (PNV 4, EA 2 IU/EB-ARALAR 1)

Kontrako botoak: 2 (PSE-EE (PSOE) )

Abstentzioa: 1(IU/EB-ARALAR 1)

### **Puntuak bozkatzea:**

1. Aldarrikatzea 1999ko irailean Euskalduna jauregian egindako batzar sortzailean onartu ziren bost



helburuen alde lan egitea beharrezkoa eta zilegi dela eta ezin dela delitutzat jo. Helburu eta lan-ildo horietan aurrera egiteagatik hautetsi eta alkateak kriminalizatzea demokraziaren aurkako ekimena da, are gehiago kontuan hartuta epaituak sufragio unibertsalez aukeratutako herri-ordezkariek direla.

2. Konpromisoa hartzea, edozein arlo instituzionaletan, demokratikoki aukeratutako ordezkariek Euskal Herriko lurralde eta eremu administratibo guztietako instituzioak sortu, bultzatu, garatu eta finantzatzeko duten eskubidea errespetatzeko.

3. Udalbiltza eta bertako hautetsi eta langile ohien aurka Madrileko Auzitegi Nazionalean eramaten ari den auzibidea irmoki salatzea eta Estatuko Gobernuari eskatzea Estatuko fiskal nagusiak gaur egun mantentzen duen akusazio publikoa erretira dezala.

4. Epaiketa gertatu bitartean, uztailaren 15ean Ordiziako plazan arratsadeko 20:00etan kontzentratzera deitzen ditugu herritarrak, era isilean elkartasuna adierazteko.

5. "Udalaren iritziz, 'Dena ETA da' erabilita, mugarik gabeko leporatzeak egin daitezke pertsonen eta erakundeen aurka. Euskal lurraldeak instituzionalizatzea eta nazio-erakuntza bultzatzea, edo euskararen alde lan egitea euskal herritar eta hautetsi askoren iritzia eta konpromisoa da. Guardia Zibilak bere txostenetan pertsona horiek, antza denez, ETAK bezala pentsatzen dutela eta, beraz, horiek guztiak ETako kideak direla jasotzea astakeria juridiko eta politikoa da".

### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 8 (PNV 4, EA 2 IU/EB-ARALAR 2)

Kontrako botoak: 2 (PSE-EE (PSOE) )

Abstentzioa: 0

**Ondorioz, aurkeztutako proposamena onartu egin da.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

### **4.- Ezker Batuak/Aralarrek aurkeztutako proposamen politikoa, Israelgo estatuaren azkenaldiko ekintza militarrek gaitzesteko.**

#### Proposamena

Israelgo Gobernuak agindutako, "askatasunaren flota"ren kontrako erasoak 10 boluntarioren hilketa eta ia 50ei zauriak eragin ditu. Eraso hau gizadiaren aurkako krimena suposatzen du eta nazioarteko erantzun politikoa behar da, zigortu gabe ez geratzeko.



Hala ere, Israelek egindako bidegabekeriekin gertatu den bezala, harresiaren eraikuntza edota 2008ko Gazaren kontrako eraso, 1440 zibilen hilketa suposatu zuena, bakarrik espero dezakegu, oraingo krimenaren aurrean, Ameriketako Estatu Batuak, Europar Batasuna edo Nazio Batuak bezalako erakundeek beste aldera begiratzea eta hori lotsagarria eta salatzea da.

Munduko gatazka guztietan bezala Palestina eta Israelen arteko gatazkaren konponbidea ere elkarriketa eta negoziazioaren bidez etorriko da, Palestinarrek mila bider aldarrikatu izan duten moduan.

Baina Israelek ez ditu nazioarteko ebazpenak errespetatzen, ezta palestinarren giza eskubide oinarrikoenak. Zisjordaniako harresiaren eraikuntza edota bi urte baino gehiago daraman Gazaren aurkako blokeo, zigor kolektiboak dira Palestinako herria osoarentzat.

Palestinako 200 elkarte zibilek, arlo anitzeko izen handiko pertsona asko, eta erakunde eta administrazioek, urteak daramate, boikota, desinbertsioak eta nazioarteko zigorrak (BDS) bultzatzen, Israel estatuari presioa egiteko, 42 urte irauten duen lurralde palestinarren okupazioa amaitu arte. BDS indarkeriarik gabeko taktika da, eta lehenago erabilia izan da beste herrialdeak presionatzeko, nazioarteko zuzenbidea errespetarazteko, Hegoafrikarekin gertatu zen moduan.

Estatu eta Nazioarteko erakundeen pasibitatearen aurrean, gizarte zibila eta oinarrizko erakundeen ardura da neurri hauek bultzatzea.. Boikot hori gure herritik egitea ere tresna baliagarria izan daiteke.

Hau guziazatik ORDIZIAKO UDALAK honako hau adierazten du:

1. Udal honek bere gaitzespen irmoena adierazten du Israelgo Gobernuak agindutako erasoaren aurrean, Gazako herriari laguntza humanitarioa garraiatzen zuen "askatasunaren flota"-ren kontra. Eraso honek 10 boluntarioaren hilketa eta 50 pertsonengan zauriak eragin ditu.
2. Udal honek mundu osoko pertsona eta elkarte zibilek bultzaturiko Israeli boikot, desinbertsio eta nazioarteko zigorrak (BDS) kanpaina babesten du.
3. Udal honek Israelgo estatuak ekoizitako zein babestutako kontsumo, kultura, entretenimendu edo bestelako PRODUKTUAK BAZTERTUko du.
4. Israelgo estatuaren izenean gure lurraldera etortzen diren talde, erakunde, enpresa, kirol talde edo kultura elkarteen PRESENTZIA NON GRATA izango da gure herrian.
5. Israelgo Estatuarekin gure herriak izan ditzakeen harreman instituzionalak hautsiko ditugu.
6. Udal honek Israelgo gobernuari gutuna bidaliko dio "askatasun flota"ren kontrako eraso arbuiauz.
7. Mozioa hau hedabideei helaraziko zaie baita, bereziki, herritar guztiei ere.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila





## Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

### Gonzalez jauna

Bere taldeak egin duen ekarpena abiapuntu bat dela uste du eta bere ustez gehiagoak bat egin dezake garrantzitsuenean.

### Asenjo jauna

Bere ustez IU/EB-ARALARek aurkeztutako idatzia nahiko gogorra da, hori dela eta honako testu alternatiboa aurkeztu du berak:

*"Pasa den maiatzaren 27an Gazako lurralde okupatuetarantz abiatu zen 'Askatasunaren Flotilla', bederatzi itsasontziz eta 750 pertsonaz osatua: Palestinaren aldeko hainbat herrialdeetako erakundetako ekintzaileak, giza-eskubideen defentsarekin eta horiek errespetatzearekin konprometitutako politika arloko jende ospetsua, pertsonal medikoa eta artistak. Flotillak laguntza humanitarioko hainbat material zeraman: 10.000 tona inguru material mediko, hezkuntzakoa eta eraikuntzakoa, Gazako Zerrendan bizi diren milioi eta erdi bizilagunentzat.*

*Laguntza humanitarioa zeraman flotilla garrantzitsu horren helburua zen Israelek Gazari ezarritako blokeo-egoera haustea, eta blokeo-politika horrek, nazioarteak laidoztatuak, Palestinako gizarte zibilean izan dituen ondorio humanitario larriak agerian uztea, eta, berriro ere, kaltetutako gizarte horri elkartasuna adieraztea.*

*Flotilla Israelgo armadak eraso zuen goizaldean, eta, zenbait iturriren arabera, hamabost bat lagun erail zituen, eta berrogeita hamar inguru zauritu. Eraso terrorista hori Estatu eratu batek egin du nazioarteko uretan; horrek, beraz, alderdi politiko eta instituzio demokratiko guztien gaitzespenik eta arbuiorik gogorrena eta aho batekoa merezi du.*

*Gertakari onartezin horiek direla eta, Ordiziako Udalak HONAKO HAU ERABAKI DU:*

- 1. "Askatasunaren Flotilla" den laguntza humanitarioko ekimen horrekiko elkartasuna eta erabateko sostengua adieraztea.*
- 2. Israelgo armadak, aipatu flotilla humanitarioari egindako eraso bortitz eta bidegabean, itsasontziak indarrez hartu izana eta hainbat pertsona erail izana salatzea eta gaitzestea.*
- 3. Biktinekiko eta horien familiekiko eta lagunekiko elkartasuna adieraztea.*
- 4. Nazioarteari exijitzea jokaera eta esku-hartze premiazkoa eta eraginkorra Nazioarteko Zuzenbideari eta Giza Eskubideei erasotzen dien esku-hartze militarri aurre egiteko.*



5. *Israelek NBEk bata bestearen atzetik hartutako ebazpenak behin eta berriro ez betetzea salatzea.*

*Espainiako Gobernuari eskatzea ebazpen hau Israelgo Gobernuari helaraz diezaiola, eta Gazari ezarritako blokeoa bertan behera uztea eta palestinarren aurkako eraso sistematikoa buka dezala exijitzea."*

Dubreuil jaunak

Jakinarazi du ez duela EAK aurkeztutako proposamena onartzeko arazorik, baina EB-ARALARek aurkeztutako testuan biktimei elkartasuna adieraztea falta dela uste du. Joan-etorri handiko gatazka dela adierazi du eta alde desberdinetan sortzen diren bortizkeria kasuak gaitzetsi behar direla jakinarazi du.

EB-ARALARen proposamenaren aurka bozkatuko dutela jakinarazi du, gaitzesteko moduko egoera aprobetxatu nahi dutela azaldu du eta euskal gatazkaren kasuan aplikatu nahi dutela uste du, testuaren ondorengo zatian "Munduko gatazka guztietan bezala Palestina eta Israelen arteko gatazkaren konponbidea ere elkarrizketa eta negoziazioaren bidez etorriko da, Palestinarrek mila bider aldarrikatu izan duten moduan"

Ez du ikuspegi horrekin bat egiten eta bere ustez elkarrizketa bidez bukatu ez diren zenbait gatazka aipatu ditu, porrotean amaitu dira asko eta bi aldeetako batek amore eman behar izan du:

Gonzalez jauna

Bere mozioa baztertzen duela eta EAK aurkeztutakoa babestuko duela jakinarazi du. Horrelako gatazketan abiapuntua elkarrizketa izan behar duela uste du.

Puntu honen bozketa atzeratzea erabaki da, eta osoko bilkuraren ondoren egingo den Bozeramaileen Batzordeari eman zaio testu bateratu bat egiteko eskumena eta hala badagokio bozkatu eta onartzea.

Osoko bilkuraren ondoren egin den Bozeramaile Batzordean hitz egindakoaren akta jaso da eta ondorengo testua osatu da:

*"Pasa den maiatzaren 27an Gazako lurralde okupatuetarantz abiatu zen 'Askatasunaren Flotilla', bederatzi itsasontziz eta 750 pertsoz osatua: Palestinaren aldeko hainbat herrialdeetako erakundetako ekintzaileak, giza-eskubideen defentsarekin eta horiek errespetatzearekin konprometitutako politika arloko jende ospetsua, pertsonal medikoa eta artistak. Flotillak laguntza humanitarioko hainbat material zeraman: 10.000 tona inguru material mediko, hezkuntzakoa eta eraikuntzakoa, Gazako Zerrendan bizi diren milioi eta erdi bizilagunentzat.*

*Laguntza humanitaria zeraman flotilla garrantzitsu horren helburua zen Israelek Gazari ezarritako blokeo-egoera haustea, eta blokeo-politika horrek, nazioarteak laidoztatuak, Palestinako gizarte zibilean izan dituen ondorio humanitario larriak agerian uztea, eta, berriro ere, kaltetutako gizarte horri elkartasuna adieraztea.*



*Flotilla Israelgo armadak eraso zuen goizaldean, eta, zenbait iturriren arabera, hamabost bat lagun erail zituen, eta berrogeita hamar inguru zauritu. Neurritz kanpoko eraso anker hori Estatu eratu batek egin du nazioarteko uretan; horrek, beraz, alderdi politiko eta instituzio demokratiko guztien gaitzespenik eta arbuiorik gogorrena eta aho batekoa merezi du.*

*Gertakari onartezin horiek direla eta, Ordiziako Udalak HONAKO HAU ERABAKI DU:*

- 1. Biktimekiko eta horien familiekiko eta lagunekiko, eta herri palestinarrekiko elkartasuna adieraztea.*
- 2. "Askatasunaren Flotilla" den laguntza humanitarioako ekimen horrekiko elkartasuna eta erabateko sostengua adieraztea.*
- 3. Israelgo armadak, aipatu flotilla humanitarioari egindako eraso bortitz eta bidegabean, itsasontziak indarrez hartu izana eta hainbat pertsona erail izana salatzea eta gaitzestea.*
- 4. Israelek NBEk bata bestearen atzetik hartutako ebazpenak behin eta berriro ez betetzea salatzea.*
- 5. Nazioarteari exijitzea jokaera irmoagoa eta eraginkorragoa Nazioarteko Zuzenbideari eta Giza Eskubideei, bereziki laguntza humanitarioari dagokionez, erasotzen dien esku-hartze militarri aurre egiteko.*
- 6. Udalak deitzen dituen laguntza humanitarioako programetan Palestina sartzea.*
- 7. Espainiako Gobernuari eskatzea ebazpen hau Israelgo Gobernuari helaraz diezaiola, eta Gazari ezarritako blokeoa bertan behera uztea eta palestinarren aurkako eraso sistematikoa buka dezala exijitzea."*

#### Bozketa

Eztabaida amaitu ondoren eta bertaratutakoei zerbait esateko aukera eman eta gero, Alkate jaunak proposamena bozkatzea eskatu du

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 10 (PNV 4, EA 2, PSE-EE (PSOE) 2, IU/EB-ARALAR 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:



## **5.-Ezker Batua/Aralarrek aurkeztutako administrazio proposamena, larunbatetan anbulatorioa ixteagatik ipinitakoa.**

### Proposamena

*Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak lehen mailako arretako zerbitzua berrantolatzea erabaki du eta horrek larunbat goizetan 45 anbulatorio ixtea dakar, tartean Ordiziakoa.*

*Osasun Sailburuak antzeko asmoa agertu zuen 2009. urtearen hasieran, baina kritika handiak jaso zituen, PSEren aldetik bereziki, eta atzera egin zuen bere asmoetan. Adibide modura Bilboko Udaleko sozialisten bozeramailearen hitzek balio dezakete: “Zentzugabeko neurria da. Osasun zerbitzuaren kalitatea murriztea dakar, osasun sistema publikoa erabiltzen dutenei eragozpenak sortzea eta mugitzeko arazoak dituzten pertsona helduen edota seme-alabak dituzten familien kasuan dagoeneko izan badituzten arazoak areagotzea”.*

*Neurri hau iragarri izanak kezka eragin du osasun arloko sindikatuen artean eta ixteko arriskuan diren anbulatorioak dituzten herrietan.*

*Uste dugu larunbat goizetan anbulatorioak ixteak kalte handia egingo diela herritarrei, ohikoa ez duten zentroren batera edota askotan bere herritik kanpoko zentroren batera joan beharko dutelako. Neurriak, halaber, larrialdietako zerbitzuetako jardunean ere eragin kaltegarria izango du, ixten diren osasun-zentroetan arta litezkeen patologiak dituzten pertsonak ugartu egingo direlako.*

*Osakidetzako gastu-austeritatea eta krisialdi ekonomikoa ezin dira osasun zerbitzuaren eta prestazioen kalitatea gutxitzeko aitzakia moduan erabili.*

*Arestian esandakoagatik, Ordiziako Udalak zera erabakitzen du:*

***Lehendabizikoa: Ordiziako Udala Ordiziako anbulatorioa eta gainontzeko anbulatorioak larunbat goizetan ixtearen aurka dago, neurri horrek lehen mailako arretako osasun zerbitzuei kalte nabarmena egiten dielako.***

***Bigarrena: Erabaki honen berri Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Legebiltzarreko Mahaiari helaraztea.***

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Gonzalez jauna

Bere hurbileko kasu bat aipatu du eta Osakidetzak zerbitzua ez kentzeko eskaria egiten du. Aurkeztu duten testua horrekin bat egiteko aurkeztu dute, baina beste alternatiba batzuk entzuteko prest daude.



### Alkate jauna

Honako testua proposatu du:

*“Komunikabideen bidez jakin da OSAKIDETZAK duen asmoa asteburuetan Euskadiko 104 anbulatorietatik 46 ixteko asmoa. Anbulatorio horien artean Ordiziakoa dago.*

*Horrek egonezina sortu du kaltetutako herritarren, langileen eta udalen artean.*

*Eusko Jaurlaritzak asteburuetako lehen arretaren berrantolamenduari ekin dio erlazionatutako eragileak kontuan hartu gabe eta datu edo proposamen alternatiborik eman gabe.*

### MOZIOA /ZUZENKETA:

*Hori dela eta Ordiziako Udalak ondoko adosten du:*

*1.- Egonezin larria agertzea OSAKIDETZAK larunbatetan Ordiziako anbulatorioa ixteagatik, eta Eusko Jaurlaritzak asteburuetako Lehen Mailako Berrantolamendu Plana jakinarazten ari den eta bideratzen ari den moduagatik.*

*2.- Eusko Jaurlaritzari eskatzea asteburuetako Lehen Mailako Berrantolamendu Plana birformula dezala, eta prozesu garden eta partehartzailea ireki dezala, kaltetutako eragile guztiekin, Euskadiko udal guztiei-baita Ordiziakri ere sartzeko erraza eta kalitatezkoa den asteburuetako Lehen Mailako zerbitzua jartzeko”*

### Gonzalez jauna

PNVk aurkeztutako testuari bere mozioko bi puntu eranstea proposatu du:

- Eskainitako zerbitzuak gutxitzea ekar ditzakeen ondorioak.
- Osakidetzan gastuekin zorrotz jokatzek ez dezala osasun zerbitzua okertzeko balio.

### Dubreuil jaunak

Mozioa babesteko arazorik ez duela azaldu du.

### Asenjo jauna

Dubreuil jaunari erantzun dio esanez ez dakiela zer babestu nahi duen. Jakinarazi du Osakidetzak jaso dituen kritikak aurreko legegintzalditik datozela, orduan ere Eusko Jaurlaritzak zerbitzua berrantolatu nahi izan zuela baita ere, eta bere garaian Alderdi Sozialistak kritikatu egin zuela eta horregatik guztiagatik atentzioa eman behar zaiela.



### Dubreuil jaunak

Alberdi nagusien erabaki batzuk udal mailako erabakietatik kanpo geratzen direla aitortu du. Erreformari dagokionez ez dio traba askorik ikusten eta onuragarriak izan daitezkeen zazpi puntu zerrendatu ditu:

- Lehen mailako arreta eta ez-ohiko arreta sendotu da.
- Lehen mailako arretarako puntuen plantila sendotu da.
- Mugatutako baliabideak hobeto kudeatu dira
- Zerbitzu hobe eskaintzen duten lekuetan eskaintzen da.
- Larrialdi zerbitzuetara joateko Hospitalera joateko beharra murrizten da.
- Etxez etxeko zerbitzua mantentzen da.
- Osasun Aholkularitza Batzordearen zerbitzu berria ireki da.

Ordiziak zerbitzuak (familia plangintza, ginekologia...) galtzea ez zaio ondo iruditzen eta aurreko Gobernuak honen errua ere izan dutela azaldu du.

### Asenjo jauna

Gauzak zehaztu nahi izan ditu, eta aurreko Gobernuak ordizia bigarren mailan eduki nahi izan badute ere, aurreko Eusko Jaurlaritzako Aholkulari batek udalerrian Hizkuntza Eskola Ofiziala ipini zuen.

### Dubreuil jaunak

Gogorarazi du Goierriko Hizkuntza Eskola Ofizialak ere aurrera egin duela alderdi sozialistari esker, baina garrantzitsuena koherentzia izatea da eta gobernu bakoitzaren ekintzak kontuan izan behar direla esan du eta belarritik tira behar bada, tira.

### Bozketa

Eztabaida amaitu ondoren eta bertaratutakoei zerbait esateko aukera eman eta gero, Alkate jaunak proposamena bozkatzea eskatu du

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 10 (PNV 4, EA 2, PSE-EE (PSOE) 2, IU/EB-ARALAR 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



## **6.- 2009ko kontu orokorrak onartzea.**

### Proposamena

Kontuen Batzorde Bereziak, 2010eko maiatzaren 12an egindako bilkuran, aldeko irizpena eman zion 2009ko Aurrekontuaren Kontu Orokorrari.

Aldeko txostena jendaurrean egon da ikusgai, 2010eko maiatzaren 20ko GAOko 93.alean, eta ez da inolako erreklamaziorik edo iradokizunik jaso; beraz, aipatu iragarkian esaten den bezala, hasierako txosten hori behin betiko bihurtuko da.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63.4. artikuluan dagoena aplikatuta, honako hau onartzeko proposamena egin zaio Udaltzari.

AKORDIO PROIEKTUA.

### **Onartu 2009ko Aurrekontuaren Kontu Orokorra.**

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Alkate jauna

Kontuen Batzorde Berezian, maiatzean, kontu orokorrak onartu zirela azaldu du baina osoko bilkurak onartu behar dituela orain.

#### Kontu-hartzaile jauna

Behin-behineko proposamena argitaratu eta gero eta inongo erreklamaziorik aurkeztu gabe Kontuen Batzorde Bereziaren proposamena behin betikoa dela uste du, eta osoko bilkuran orain bozkatu egin behar duela.

### Bozketa

Eztabaida amaitu ondoren eta bertaratutakoei zerbait esateko aukera eman eta gero, Alkate jaunak proposamena bozkatzea eskatu du

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 10 (PNV 4, EA 2, PSE-EE (PSOE) 2, IU/EB-ARALAR 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0



Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

### **7.- Borondatezko lankideari diru-laguntza (Iparra-Hegoa programa)**

#### Proposamena

Ipar-Hegoa kooperazio programetan parte hartzeagatik Ordiziako gazteei ematen zaizkien diru-laguntzak arautzen dituen araudia jarraituz eta 2010 urteko ekitaldiari dagokion deialdia egin ondoren, azaroaren 30era arte irekita dagoena, apirilean eskaera bat aurkeztu da. Erabiltzeko moduan dagoen aurrekontu partida pertsonako 1.500 eurokoa da.

Eskaera aztertu ondoren eta 2010eko ekainaren 16ko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin honakoa onartzea proposatzen da:

#### AKORDIO PROIEKTUA

**1.345 euroko diru-laguntza onartzea eta NAROA GOIBURU AGIRRE ordiziar gazteari ematea kooperante gisa Guatemalako Antigua hirian eta inguruan bizi diren ume txiroekin gizarte hezitzaile gisa jarduteko 2010eko abuztuan. Zelanda Berriko gobernuz kanpoko INTERNATIONAL VOLUNTEER HQ erakundearen bidez, Antiguako MAXIMO NIVEL elkartearekin ariko da.**

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

#### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Alkate jauna

Ipar-Hegoa programa, 20 eta 30 urteko gazteentzako dena, oso arrakastatsua izan dela jakinarazi du. Laugarren eskaera jaso da, eta oraingoan Naroa Goiburu Agirre andreak hezitzaile bezala Antigua, Guatemalan hezitzaile bezala lana egiteko eskaera aurkeztu du

#### Leunda jauna

Laguntza nola kalkulatzeko den galdetu du, gastuarekiko zein portzentaia ematen zaion.





### Alkate jauna

Erantzun dio ez dela portzentaien arabera ordaintzen, baizik eta bidaiak, tasak eta abar hartzen direla kontuan.

### Leunda jauna

Azaldu du, aurreko osoko bilkuan Maiza andreak esan zuen bezala, 3 astekoa oso epe laburra iruditzen zaiola horrelako laguntza mota eman ahal izateko.

### Alkate jauna

Azaldu dio bere ustez oso esperientzia aberasgarriak direla eta horrek bigarren mailako irakurketa duela eta herritarren sentsibilizazioan eragiten laguntzen dutela horrelako esperientziak udalerrian zabaltzen diren neurrian.

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

#### Bozketa

Eztabaida amaitu ondoren eta bertaratutakoei zerbait esateko aukera eman eta gero, Alkate jaunak proposamena bozkatzea eskatu du

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 10 (PNV 4, EA 2, PSE-EE (PSOE) 2, IU/EB-ARALAR 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**8.- Ordizia Lantzen Sari Udalak egindako abala, San Joan eremuko jabekideekin egindako zenbait kontraturi dagokiona.**

#### Proposamena

ORDIZIA LANTZEN SA Udal Elkarteak, eta Ordiziako "San Juan" HIEko 22ko lurak eroste aldera, trukaketarako kontratuak izenpetuko ditu

ORDIZIA LANTZEN SAK honako lursailok bereganatuko ditu:



% 100	a.20.2/1 lursaila	8 etxebizitza libre	Lurzoru gaineko eraikigarritasuna: 1.150 m2
% 35,70	a.20.2/6 lursaila	8 etxebizitza libre	Lurzoru gaineko eraikigarritasuna: 1.150 m2
% 16,48	a.30.6 lursaila	5 etxebizitza / Garapen baxua	Lurzoru gaineko eraikigarritasuna: 765 m2
% 59,06	a.30.7 lursaila	6 etxebizitza / Garapen baxua	Lurzoru gaineko eraikigarritasuna: 920 m2
% 100	a.40.3 lursaila	25 BOE eta lokal komertzialak	Lurzoru gaineko eraikigarritasuna: 2.850 m2 eta 520 m2 merkataritza-azalera
% 29,16	a.40.7/4 lursaila	10 BOE	Lurzoru gaineko eraikigarritasuna: 1.124 m2
% 100	a.40.7/5 lursaila	10 BOE	Lurzoru gaineko eraikigarritasuna: 1.124 m2

Lursail horien ordainetan, ORDIZIA LANTZEN SAK 4 etxebizitza eta horiei dagozkien eranskinak emango ditu, Trukaketa Kontratuaren "Kalitate Memoria" I Eranskinean zehazten den bezala eraikiak eta behar bezala gaituak, Ordiziako HIE 22-San Juan birpartzelazio proiektuko 30.7 lursailean (garapen baxuko bizileku tipologiakoa), lurzoru gaineko 613,32 m2 eraikigarriak.

Trukaketaren balioa izango da: bi milioi hogeita hamabi mili zazpiehun eta berrogeita hamahiru euro eta hemeretzi xentimo (2.032.753,19 €).

"Trukaketa bermatze aldera, jabeek Ordiziako Udalaren abala eskatu diote ORDIZIA LANTZEN SARI; horrenbestez, honako akordioak hartzea proposatu da:

ordaintzea bermatuko du Josefina Beracoechea Jauregui, María Milagros Múgica Beracoecheari, Jesús Múgica Beracoecheari eta Maria Isabel Múgica Beracoecheari, baldin eta, 2012ko abenduaren 31n ORDIZIA LANTZEN SAK 4 etxebizitza eta horiei dagozkien eranskinak (Trukaketa Kontratuko "Kalitate Memoria I Eranskinean zehazten den erara eraikiak eta behar bezala gaituak, Ordiziako AIU.22-San Juan birpartzelazio proiektuko 30.7 lursailean kokatuak) entregatzeko obligazioa beteko ez balu

Bermea solidarioki emango da obligaziodun nagusiarekiko, eskusio eta banaketa onurari berariaz uko eginez.

Ordiziako Udalak abal hori ordainduko du, notarioaren bitartez, Ordiziako Udaletxearen helbidean, adierazitako gehieneko kopururaino abalaren onuradunak egindako errekerimenduaren aurrean, abalaren balio-dataren barruan, eta bermatutako obligazioa bete dela egiaztatuko du.



ABAL hau etxebizitzaren jabetza emateko Eskritura Publikoa sinatzean automatikoki indargabetuko da.

X X X X X X

ORDIZIA LANTZEN SA Udal Elkarrekin, eta Ordiziako "San Juan" HIEko 22ko lurra eroste aldera, trukaketarako kontratuak izenpetuko ditu

ORDIZIA LANTZEN SAK honako lursailok bereganatuko ditu:

% 28,49	a.20.2/3 lursaila	8 etxebizitza libre	Lurzoru gaineko eraikigarritasuna: 1.150 m <sup>2</sup>
% 15,60	a.30.3 lursaila	5 etxebizitza / Garapen baxua	Lurzoru gaineko eraikigarritasuna: 765 m <sup>2</sup>
% 16,05	a.40.6/1 lursaila	50 BOE	Lurzoru gaineko eraikigarritasuna: 5.400 m <sup>2</sup>

Lursail horien ordainetan, eta Ceberio-Enea eraisteagatik kalte-ordainetan (Birpartzelazio Proiektuan adostutakoaren arabera, 146.324,64 €), ORDIZIA LANTZEN SAK 2 etxebizitza eta horiei dagozkien eranskinak emango ditu, Trukaketa Kontratuaren "Kalitate Memoria" I Eranskinean zehazten den bezala eraikiak eta behar bezala gaituak, Ordiziako HIE 22-San Juan birpartzelazio proiektuko 30.7 lursailan (garapen baxuko bizileku tipologiakoa), lurzoru gaineko 306,66 m<sup>2</sup> eraikigarriak. Ceberio Sarasola anaiek 197.715,18 € emango dizkiote ORDIZIA LANTZEN SAKi etxebizitzak jasotzerakoan.

Trukaketaren balioa izango da: zazpiehun eta hogeita bi mila hirurehun eta laurogeita lau euro eta laurogeita bi xentimo (722.384,82 €).

"Trukaketa bermatze aldera, jabeek Ordiziako Udalaren abala eskatu diote ORDIZIA LANTZEN SAKi; horrenbestez, honako akordioak hartzea proposatu da:

Bermea solidarioki emango da obligaziodun nagusiarekiko, eskusio eta banaketa onurari berariaz uko eginez.

Ordiziako Udalak abal hori ordainduko du, notarioaren bitartez, Ordiziako Udaletxearen helbidean, adierazitako gehieneko kopururaino abalaren onuradunak egindako errekerimenduaren aurrean, abalaren balio-dataren barruan, eta bermatutako obligazioa bete dela egiaztatuko du.

ABAL hau etxebizitzaren jabetza emateko Eskritura Publikoa sinatzean automatikoki indargabetuko da.

"Ordiziako Udalak gehienez ere zazpiehun eta hogeita bi mila hirurehun eta laurogeita lau euro eta laurogeita bi xentimo (722.384,82 €) ordaintzea bermatuko du 15219050K NAN duen Luis Ceberio Sarasola jaunari eta 15219051C duen Ramon Ceberio Sarasola jaunari, baldin eta, 2012ko abenduaren



31n ORDIZIA LANTZEN SAK 2 etxebizitza eta horiei dagozkien eranskinak (Trukaketa Kontratuko "Kalitate Memoria I Eranskinean zehazten den erara eraikiak eta behar bezala gaituak, Ordiziako AIU.22-San Juan birpartzelazio proiektuko 30.7 lursailean kokatuak) entregatzeko obligazioa beteko ez balu.

Bermea solidarioki emango da obligaziodun nagusiarekiko, eskusio eta banaketa onurari berariaz uko eginez.

Ordiziako Udalak abal hori ordainduko du, notarioaren bitartez, Ordiziako Udaletxearen helbidean, adierazitako gehieneko kopururaino abalaren onuradunak egindako errekerimenduaren aurrean, abalaren balio-dataren barruan, eta bermatutako obligazioa bete dela egiaztatuko du.

ABAL hau etxebizitzaren jabetza emateko Eskritura Publikoa sinatzean automatikoki indargabetuko da.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

#### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Alkate jauna

Jakinarazi du puntu hau osoko bilkuran aztertu zutela aurretik eta alde batera utzi zutela zenbait puntutan zalantzak zeudelako eta dagoeneko argitu direla zalantza horiek.

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

#### Bozketa

Eztabaida amaitu ondoren eta bertaratutakoei zerbait esateko aukera eman eta gero, Alkate jaunak proposamena bozkatzea eskatu du

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 10 (PNV 3, EA 3, PSE-EE (PSOE) 2, IU/EB-ARALAR 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:



## **9.- Agenda 21eko ekintza plana: 2010/2020**

### Proposamena

#### ORDIZIAKO AGENDA 21: EKINTZA-PLANA 2010-2020

Ordizia 2003. urtean hasi zen Agenda 21aren inguruan lanean Udaltalde 21 Goierri deritzonaren barruan. Udaltalde honetan, Ordiziarekin batera eskualdeko beste hamazazpi udalerrik lan egin zuten Agenda 21aren diseñu fasea garatuz metodologia bateratu bat erabiliz. Lehen prozesu horren emaitza moduan sortu zen, *Ordiziako Agenda 21eko Ekintza-Plana*: iraunkortasunaren bidean Ordizian aurrera eraman beharreko ekintza ezberdinak jasotzen zituen dokumentua.

Lau urte baino gehiago igaro dira Ordiziako Udaleko Udaltatzak 2006an Agenda 21eko lehenengo Ekintza-Plan hura onartu zuenetik. Ordudanik planak jasotzen zituen hainbat ekintza burutu badira ere, Agenda 21eko Delegaritzan burutu den hausnarketa baten ondoren **Ekintza-Plana eguneratu eta Ordiziako Udalera egokitu beharra** ikusi da. **Erabilgarria**, Ordiziako Udaleko funtzionamendura **egokitua** eta udaleko teknikari zein arduradun politikoentzat **lanerako tresna** izatea du helburu plan honek.

Ekintza-planaren eguneraketa prozesuari 2009ko urrian ekin genion, eta Ingurumen gaien Sintesi-Diagnostikoa batetatik abiatuta eta Herritarren Partehartze Foroa lanketa-talde moduan hartuta, hilabete hauetan zehar **Ordiziako Ekintza-Plana 2010-2020** dokumentua sortu da. Herritarren Partehartze Foroaz gain, dokumentu honetan Udal mailako lan-talde batek ere parte hartu du (agenda 21, Zerbitzu, Hirigintzak, teknikari eta ordezkariekin)

Dokumentu honek datozen 10 urteetan Ordiziako Udalak ingurumen alorrean landu-beharreko ekintza ezberdinak jasotzen ditu, ekintza hauetatik prioritarioak zein diren ere zehazten duelarik.

Ekintza-Plan hau gai edo Lerro Estrategiko ezberdinetan egituratzen da. Hona hemen bertan lantzen diren Lerro Estrategikoak:

1. **Udalerriko natur, paisaia eta bioaniztasun ondarearen zaintza eta landa eremuaren kudeaketa egokia bermatzea.**
2. **Udalerriko mugikortasun beharrak iraunkortasun irizpideekin asetzea.**
3. **Uraren kudeaketa iraunkor eta eraginkorra burutzea.**
4. **Energia murrizpen, eraginkortasun energetiko eta energia iturri berriztagarrien erabileran oinarrituko den energia eredia lortzea.**
5. **Kontsumo arduetasua eginez hondakinen sorkuntzaren prebentzioa bultzatzea eta hondakinen kudeaketa egokia bideratzea.**
6. **Ingurumen kalitatearen kontrola hobetu eta jarduerak kudeatzeko sistemak sustatu.**
7. **Udaleko Ingurumen kudeaketa hobetu eta Erosketa Berdea bultzatu.**
8. **Iraunkortasun baloreetan herritarrak sentikortu, hezi, informatu eta ingurumen gaien kudeaketan parte har dezaten bermatzea.**

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.



## Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

### Alkate jauna

Aurreko legegintzaldian ekintza programa bat onartu zen eta Asenjo jaunak plana aztertzea proposatu zuen eta 5 urtetan luzatu beharrean 10 urtetan luzatzea.

### Asenjo jauna

Udalerria hobetzeko sortutako foroetan parte hartu duten herritarrak zoriondu nahi izan ditu. Bere ustez bertaratutakoek ez dute ekintza planari buruzko azalpenik behar, EAko zinegotziek izan ezik, beste zinegotziek ez baitute Foro hauetan parte hartu.

### Leunda jauna

Asenjo jaunari jakinarazi dio behin joan zela Foro horretara, eta erabaki zutena ez zutela errespetatu, eta Aralarrek ez duela parte hartuko benetako parte-hartzea ez dagoen bitartean.

Ekintza planari dagokionez, horren aldeko botoa emango dutela jakinarazi du, baina zenbait kontraesan dituela esan du.

Paisaia zaindu behar dela esaten da, eta horrek Oiangurenen garatutako politikarekin kontraesanean doa, sareak ipintzeko kontuarekin. Horrekin batera, erraustegiaren alde egindako apostuak ez du 5. puntuarekin bat egiten.

### Asenjo jauna

Leunda jaunari errepikatu dio behin bakarrik hartu duela parte foro horretan. Foro hartan parte partu zutenek ez zuten izan Leundaren ikuspegi bera. Norbanakoek, Jubilatuen Etxeko ordezkariak, eskoletako ordezkariak, gurasoek, Oiangu Bizirikoko kideek, ilegalizatutako taldeko kideek...parte hartu zuten, baina EB-ARALAReko ordezkariak bi aldiz bakarrik hartu dute parte.

### Leunda jauna

Erantzun dio esanez begi bistakoa dela ez direla joan, eta horrek berdin jarraituko duela Oiangurenekin berdin jokatzen duten bitartean.

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

## Bozketa

Eztabaida amaitu ondoren eta bertaratutakoei zerbait esateko aukera eman eta gero, Alkate jaunak proposamena bozkatzea eskatu du.



Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 10 (PNV 3, EA 3, PSE-EE (PSOE) 2, IU/EB-ARALAR 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

### **10.- Galde-eskeak.**

Asenjo jauna

Ur-arduradunaren lan egoerari buruz galdetu du.

Alkate jauna

Jakinarazi du hurrengo astelehenean bilera bat egingo duela berarekin eta langileen ordezkariekin.

Asenjo jauna

Zerbitzuen Batzordearen menpeko organigramako langileekin lotutako bileretan egotea eskatzen du.

Horrekin batera, Gobernu Batzorde bat ekarri du gogora, bertan hiru hilabeteko azterketa plangintza jasotzen da, hutsik dauden LPEren ingurukoa, eta epea maiatzaren 1ean amaitzen zen.

Alkate jauna

Ez zaio egokia iruditzen gaia osoko bilkuran eztabaidatzea, pertsona hori Gobernu Batzordeko alderdi bateko kide denean.

Asenjo jauna

Errepikatu du ez dutela kontuan hartzen ezertarako. Adibide gisa “garbitzeko makina” aipatu du, eta abenduan izandako matxura eta gero berri bat erosteko arazorik ez zegoela esan zioten baina oraindik 6 hilabete igaro eta gero zain dago.

Beste Gobernu Batzorde batzuetan, otsailean eta martxoan, “garbitzeko makina” matxuratua dagoela jasotzen da eta gaia konponduko dela.



### Alkate jauna

Errepikatu dio ez zaiola egokia iruditzen gaia osoko bilkuran eztabaidatzea, pertsona hori Gobernu Batzordeko alderdi bateko kide denean.

### Asenjo jauna

Borondatea falta dela iruditzen zaio, eta garbiketa zerbitzua okertzen ari dela iruditzen zaio, pentsatu nahi du asmoa ez dela herritarrei sinestaraztea zerbitzuetako zinegotziaren kudeaketa ez dela egokia, baina bere ustez erakutsi nahi dutena da zerbitzu publikoa ez dela iristen eta zerbitzuak pribatizatu behar direla.

### Dubreuil jaunak

2009ko maiatzean krisiaren aurkako lan-mahai bat sortzeko eskatu zuen eta alkatea horrekin ados zegoen baina dirudienez gaia geldituta dago.

### Alkate jauna

Proposamena EUDELe egin zuela jakinarazi du eta berak interesa azaldu zuen eta krisiaren aurkako neurriak adostu zituzten bilera batera ere joan zen. Jakinarazi du lanean ari direla, agiri bat egiten ari direla eta dagokion bilera deialdia egingo dutela.

### Dubreuil jaunak

Jakinarazi du neurriak landu dituztela inorekin ezer adostu gabe eta beste alderdien ekarpenik gabe.

### Leunda jauna

Deialdiak nola egiten diren jakin nahi izan du, batzuetan email bidez eta beste batzuetan papelean etxean jasotzen baititu. Eta Ur Arduradunari dagokionez, esan zitzaion amortizazio prozesuarekin eta tramitearekin ados zegoela langilea, baina ikusten duenez ez da zuzena.

### Asenjo jauna

Jakinarazi du "Feriko" Batzorde "zabalean" parte hartzeko deialdirik ez duela jaso, baina jaso dutela zerbitzuetako langileek, bere ustez Batzorde horretara behin bakarrik joan da, bere kabuz D'Elikatuzera joan zenean.

### Iturriotz andrea

Barkamena eskatu dio deialdia bidali ez izanagatik baina Batzorde "zabala" martxan jartzean azpibatzerdeak sorzea pentsatu zuten, Ordiziako azokaren 500 urteurrenerako sortutakoa bezala, eta teknikariak joatea beharrezkoa zela pentsatu zuten joateko aukera handiagoak izango zituztelako. Azpibatzerde horietan hitz egindakoa Delegaziora pasatzen dute eta ondoren osoko bilkurako Gaien Batzordera.





### Asenjo jauna

Ez-egite horiek bere ustez ez dira nahigabe egindakoak.

### Carlos Gonzalez Astiz jauna

Jakinarazi du, Castelldefellseko istripuaren onorioz Ordiziako tren geltokiaren egoera aztertu beharko litzatekeela, segurtasuna eta minusbaliatuen irisgarritasuna nola dagoen aztertu.

Horrekin batera, udaletxeko funtzionarien soldata jaitsieraren inguruan galdetu du, nola eta noiz zehaztuko den eta alderdi eta kargu politikoen ordainketekin era berean jokatu beharko litzatekeela.

### Alkate jauna

Erantzun dio esanez ekainean betiko moduan ordainduko dela, eta seguruena uztailean aplikatuko direla murrizketak ekaineko murrizketekin batera, eta aplikazio irizpide gehiago zehaztu behar direla eta beste eztabaida-leku batzuetan erabakiko direla horiek.



Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, alkate jaunak bilkura amaitutzat jo du. Behin-behineko idazkari naizen honek bilkuraren Akta jaso, eta horren egiaztapena egiten dut.